

HEZKUNTZA ▶

Landare inbaditzailea setiatuz

Lezo Institutuko ikasleak landare inbaditzaileak aztertzen ari dira, Naturgaia taldearekin elkarlanean



Irudian, Lezo Insitututuko ikasleak beren GPSan Pysbe auzoko eremua markatzen. L. MUGURUZA

LOREA MUGURUZA

Goizean goiz Gurutze Santuaren plazan elkartu eta landare inbaditzaileen bila abiatu ziren atzo, Lezo Institutuko bost ikasle irakaslearekin batera.

Lehen urtea da esperientzia hori aurrera daramatela Lezo Institutuan. Kutxako Naturgaia taldearekin elkarlanean ari da institutua landare inbaditzaileak aztertzeko esperientzian. Naturgaia taldeak GPSak utzi dizkiete ikasleei, eta hauek landare inbaditzailea topatzen duten lekua markatzen dute tresnarekin. Ingurua aztertu ondoren, eta landareen kokalekua zehaztu ostean, ordenadorean sartzen dituzte datuak, irudi eta guzti. Aurtengo ikasleek jasotako datuak, datorren urtean beste ikasle batzuk erabiliko

diztute landare horien garape-na gainbegiratze aldera.

Atzo, Gurutze Santuaren plazatik jaitsi eta lehen geldialdia Zubitxo errekaaren ondoan egin zuten gazteek. Errekako ura ez da ikusten, hainbat landare hazi direlako bere gainean. Eutrofizazioa gertatu da: erreka daraman kutsadura dela medio, landareek bizitzeko beharrezkoak dituzte elikagaiak ugaritu egin dira, eta berriak hazi.

Pysbe auzoan, inbasioa

Bost ikasleetako bik puntuak markatzen zituzten GPSarekin, beste batek argazkiak ateratzen zizkien, eta gainontzekoek bideo kamera batekin irudiak jasotzen zituzten, gero beren ikaskideei erakusteko.

Zubitxo errekatik gora, Pys-



Irudian, Fallopia Japoniarra. L. M.

be auzoan dagoen zubiaren ingurura jo zuten. Errekastoaren iberrean topatu zuten ikasleek landare inbaditzailearen kolonia. Fallopia Japoniarra izan zen aurkitu zuten landarea, baina oraindik ere hedatze prozesuan dagoela esan zuten ikasleek.

GIZARTEA ▶

Aiton Bordak, Kantabriara txangoa

Aiton Borda Erretiratuen Elkarteak Kantabriara (Espainia) txangoa egingo du hilaren 30ean. Izena gaur 10:30etik aurrera eman daiteke Aiton Bordaren egoitzan. Txangoak, autobusa eta bazkaria barne, 25 euro balio du. Besteak beste, honako ibilbidea egingo dute Kantabrian zehar: lehenik eta behin Santoña aldera egingo dute Aiton Bordakoek, gero Nojarantz abiatuko dira Isla herritik igaro ondoren. Azkenik, Castro Urdiales herrira joango dira eta hortik, San Andresera.

JAIK ▶

Afari piratarako txartelak salgai daude

Asteburu honetan ospatuko den Zabarre Haserre Festaren baitan antolatu den afari piratan parte hartzeko txartelak salgai daude. Bost euroren truke eskuratu daitezke herriko honako tabernatan: Tifelun, Txingurrin, Leitizan eta Aizpean. Ostiral honetan, 21:00etan, preso eta iheslarien aldeko elkarretaratzearen ondoren, Gurutze Santuaren plazan izango da afaria.

ZINEMA ▶

Etzi, zinema izango da Gezala Auditoriumean

Zinema 800 ekimenaren baitan egin ohi diren zine emanaldietan, *Carta de una mujer desconocida* Xu Jinglei zine zuzendari txinatarren filma izango da ikusgai, 22:00etan, bi euroren truke. Txinako hiriburuan gertatzen da filma, gizon batek etxera iritsi eta gutun bat topatzen duenean, hain zuzen. 2004an Donostiako Zinemaldian zilarrezko maskorra eskuratu zuen.

FUTBOLA ▶

Allerru-Algeposak seina, Laskorainen kontra

Partidako azken segundora arte borrokatu zuten bi taldeek garaipena lortzeko

L. MUGURUZA

Allerru-Algeposak seina berdindu zuen Tolosako Laskorain taldearen kontra. Partida gogorra izan zen, Laskorainek ez baitzuen amore ematen, ezta Allerru-Algeposak ere.

Lehen zatian Laskorain izan zen baloiaren jaun eta jabe. Behin eta berriz, gol aukerak sortzen aritu ziren tolosarrak, Allerru-Algeposkoek deus egiteko indarririk erakusten ez zuten bitartean. Bi gol sartu zi-

tuen Laskorainek. Baina, lehen zatiko azken unean Daviden eta Oskarren artean egindako hormaren ondorioz, azken horrek gola sartu zuen.

Bigarren zatian, gora

Norgehiagokaren bigarren zatian hasieran, tolosarrek golen alde handitzeari ekin zioten. Allerru-Algeposa esnatzen zen bitartean, beste bi gol sartu zizkion Laskorainek. Baina, partidak buelta eman zuen: Raulek lezoarren bigarren gola sartu baitzuen. Berriz ere, Laskorainek beste gol bat sartu zuen, eta hortik aurrera Allerru-Algeposaren gol jariora hasi zen. Asierrek hirugarren gola, Juanjok laugarrena eta Josebak bosgarrena.

Partida bukatzeko 40 segundo falta zirela Laskorainek seigarren gola sartu zuen. Emaitza ez zen horrela gelditu, ordea: hamar segundoren faltan berriz ere Josebak Allerru-Algeposaren seigarren gola sartu zuen, eta seinako berdinketarekin bukatu zuen.



Errenteria: Gure etorkizuna irudikatuz
Ingurumena hobetzen jarraitzeko

Juan Carlos Merino: Gure alkatea

www.pse-errenteria.org

info@pse-errenteria.org